[Beasain agenda] 2010eko abendua

Beasainen erosi
BAREAK

GOIENIZ zinekluba

## 1 ASTEAZKENA
17:30etan.- Bularreko minbiziaren prebentzioari buruzko hitzaldia. Usurbe Antzokian. Hizlaria: Arrate Plazaola doktorea. Antolatzailea: Katxalin Elkartea.

## 2 OSTEGUNA
18:00etan.- Udal Euskaltegiaren inaugurazioa.

## 12 IGANDEA
08:00etan.- Mendi-irteera: Beasain-Arastortzakogaña. Antolatzailea: Aizkorri Mendizale Elkartea.

## 15 ASTEAZKENA
17:30ean.- Ipuin kontaketa: "Itsaso ezkutuko sareak". Udal Bibliotekan.

## 16 OSTEGUNA
09:00 eta 11:00etan.- "Peter Roberts mimoa", eskola-kanpaina. Usurbe Antzokian.

## 17tik 19ra
08:00etan.- Liburu azoka. Gernika pasealekuko frontoian.

## 19 IGANDEA
08:00etan.- Mendi-irteera: Aizkorri. Antolatzailea: Aizkorri mendizale elkartea.

## 23 OSTEGUNA
22:30ean.- Dantza jaialdia Ostadar taldearekin. Usurbe Antzokian.

## 24 OSTIRALA
17:30ean.- Olentzerori ongi-etorria. Loinazko San Martin plazan.

18:30ean.- Gabon eskea. Igartzako errotatik.

## 25 LARUNBATA
12:00etan.- Udal Txistulari Bandaren kalejira. Igartza jauregian.

## 26 IGANDEA
08:00etan.- Mendi-irteera: Txindoki. Antolatzailea: Aizkorri mendizale elkartea.

19:00etan.- V. Gospel Zikloa, "The upper room Gospel". Igartza Jauregian.

## 27tik 30era
11:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 19:30era.- Haurren Gabonetako Parkea. Antzizar kiroldegian.

## 31 OSTIRALA
12:00etan.- San Silbestre krossa. Antolatzailea: Beti Bizi elkartea.

## 2 OSTEGUNA
21:00etan.- "Despedidas" filmaren proiekzioa. Usurbe Antzokian.

## 16 OSTEGUNA
21:00etan.- "Soul Kitchen" filmaren proiekzioa. Usurbe Antzokian.

## 30 OSTEGUNA
21:00etan.- Laburmetraien emanaldia. Usurbe Antzokian.

## ERAKUSKETA
Lanegunetan: 19:00-21:00 Jaiegunetan: 12:00-14:00 / 19:00-21:00

### 3tik 12ra
Argazki erakusketa. Antolatzailea: Argizpi argazkizale elkartea. Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

### 18tik urtarrilaren 2ra
Goierriko Artisten IX. Topaketa. Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.



L.G. SS-1284-2008
3752-010
Paper birziklatuan egina

Kultura informazio gehiago: www.beasain.net

DICIEMBRE 2010

# Beasain egunez egun

BEASAINGO UDAL ALDIZKARIA 2010eko abendua 25

Beasaingo Udala



# GABON ZORIONTSUAK GUZTIOI!

4 ELKARTASUNA. Elikadura Bankuak 4.175 kilo janari banatu ditu aurten Beasainen.
6 HIRIGINTZA Herrigunea oinezkoentzat berreskuratu da.
10 ESKOLA KIROLA Lanean osasunaren eta balore hezitzaileen alde.



Txakel



# Beasaindarrak eta Beasain!

Txakel



“Igartza errota elurtuta” 2010. Xabier Garmendia



“Ermita de Loinaz”- 2010. Xabier Garmendia



“Aralar elurtuta” - 2009. Xabier Eskisabel



“Estación ferrocarril” - 2010. Luisa Zurutuza

Puedes colgar tus fotos en
**www.guregipuzkoa.net**
Algunos beasaindarras ya lo han hecho.
Éstas son algunas de las fotos que han subido.
Animatu zaitez!



“Dolare baserria”. Jone



“Pérgola nevada” - 2010. Luisa Zurutuza



## GABON ZORIONTSUAK HERRITAR GUZTIOI

Alkatearen txokoa...



Patxi Plazaola

Kendu diogu egutegiari azken aurreko orria. Neguila edo abenduan Artzal edo Agerrezabal zaharra ageri da, zahartu den urteari agur esanez.

Eta itzaltzear dagoen urte gogor honetan zaharrak baino gazteak ditut gogoan, krisiaren ondoriorik larriena beraiek ari baitira pairatzen: Langabezia. Etxe askotan beharrak eta exkaxiak jo du atea.

Zeharka bada ere, krisiak badu ondoriorik herriaren segurtasunean: lapurreta, indarkeria, mehatxua... ugaritu egin dira.

Eta honek guztiak kezka eta haserrea sortarazi du herritarren artean. Azaroak 11ko manifestazio jendetsua da horren adibide.

Zer pentsa eman dit manifestazio horrek. Gizarteak, erakunde publikoen eskutik hainbat baliabide eta diru jarri du urteetan ditxosozko Muki gizarteratzeko, eta zer lortu da?

Onartu ditugun legeak eta arauak ez al dira zabalegiak? Nahita gizartearen kontra ari denak, gizartearen laguntza jaso behar al du?

Bestetik, Mukiren kasuan harrigarria iruditzen zait sistema judizialaren jokabidea. Azken aldiko delituak, guztien begietara, hain larriak izan badira ere, fiskalak ez du nonbait motiborik ikusi atxilotzeko. Sistema judizialean zerbaitek huts egiten du.

Herritarren eta Ertzainen salaketa larri eta probatuen aurrean neurri gogorrak eta azkarrak ez badira hartzen delitugilea babestua sentitzen da eta bere horretan jarraitzen du gizartearen kontra.

Hausnarketa honen ondoren gatoz aldizkarira. Herriko ikastetxeek, elkarlanean, kirola bultzatzen dute heziketarako bide egoki bezala. Eskola kirolak guraso asko biltzen ditu, laguntzaile, entrenatzaile edo kotxe gidari gisa.

Kirolak muinean lehia badarama ere, talde lana, elkar-ezagutza eta elkar errespetua ere zaintzen da kirolaren bidez. Larunbat goizetan kirolguneetatik buelta bat ematea nahikoa da ikusteko zein lan ederra egiten ari diren Eskola kiroleko kideak.

Gabon egunekin batera etorri ohi da askoren kezka: opari, janari, edari... erosi eta erosi. Baina begiak pittin bat irekitzea nahikoa da nonahi jasaten ari diren gosea, pobrezia... ikusteko. Gurean ere badugu beharra. Janarien Bankuko arduradunek ondo baino hobeto dakite zer den beharra, ukitu egiten dute gosea, familia asko da janaria erosteko ere dirurik ez duena.

Gabonak , urteko ibilbide zoroan geldigune paregabea dira, gure barruan zoriona bilatzeko eta apaltasunez eta begirunez elkar besarkatzeko.

El 2010 ha sido un año duro, la crisis ha afectado a muchas familias y el paro se ha incrementado sobre todo en los jóvenes. Una consecuencia colateral es el aumento de la inseguridad: robos, extorsiones, violencia, secuestros... Todo ello genera preocupación y enfado justificado de los vecinos. La multitudinaria manifestación del 11 de noviembre ha sido una muestra de ello.

Esta manifestación me sugiere algunos interrogantes: La sociedad y las instituciones públicas han destinado importantes recursos para reinsertar al Muki en la vida social y ¿qué se ha logrado? ¿el que voluntaria y conscientemente va contra las normas de convivencia social, tiene que recibir la ayuda de esa misma sociedad?

Por otra parte en el caso de Muki me causa extrañeza el comportamiento del sistema judicial. Ante delitos que a todos nos parecen graves la fiscalía no ve motivos de detención y encarcelamiento. Hay algo que falla en el sistema judicial. Si ante denuncias tan graves y probadas la justicia no actúa con rapidez y contundencia el delincuente se crece y delinque con más facilidad. Se siente impune.

Volviendo al contenido de la revista, en este número se muestra la colaboración de los centros escolares, sus asociaciones de padres y el Ayuntamiento a través del programa de Deporte Escolar. Programa que pretende ofrecer a los escolares por medio del deporte oportunidades para impulsar el trabajo en equipo, el mutuo conocimiento y respeto.

Se acercan las Navidades y para algunos la preocupación por los regalos,la comida...la obsesión por comprar, comprar...mientras en nuestro entorno hay familias que padecen hambre de verdad. Los responsables del Banco de Alimentos conocen y tocan la pobreza , el hambre...

Aprovechando la parada navideña tomemos tiempo para encontrar la felicidad en nuestro interior, tiempo para con humildad y respeto abrazarnos, tiempo para recordar a los seres queridos y tiempo de alegría y esperanza de un mundo mejor.

## Zer eskatzen diozu 2011ri?



### Marisa Cabeza

“Lo cierto es que 2010 me ha ido muy bien. Me he jubilado este año y he tenido más tiempo para mí misma y para dedicarlo a mi nieto. Espero que el 2011 siga igual de bien, ¡que me quede tal como estoy ahora! Todo me va bien y deseo que siga siendo así. En Beasain estoy muy a gusto. Yo soy extremeña pero vine muy joven a Euskadi. Cuando me casé me trasladé a Beasain, y desde entonces hemos hecho toda nuestra vida aquí. Estoy feliz”.



### Juani Urretabizkaia

“Zer eskatuko niokeen 2011 urteari? Ba egia esan ez daukat denbora horretan pentsatzen jartzeko! Ez dut astirik hartzen etorkizunean zer egingo dudan aztertzeko. Jubilazioa iritsi arte itxaron beharko dut horretarako! Zerbait eskatu beharko banu, osasuna, lana eta suertea izango lirateke. Baina ezin naiz kexatu; aurten gainera beste iloba bat jaio da gurean eta pozik gaude. Beasaingo baserri batean bizi gara familia guztia, oso gustura. Lanean ere ezin kexatu, agian somatu izan dugu krisiaren eragina pixkat, baina orokorrean ondo joan da dena. Horrela geratzeko moduan gaude, egia esan”



### Santi Bonilla

“A título personal, al 2011 le pediría trabajo. Estoy en paro desde enero. Trabajaba en una empresa de construcción y la crisis nos ha pillado de lleno. Actualmente estoy haciendo varios cursillos, pero la situación no pinta nada bien. Ocurre algo muy contradictorio: desde fuera la gente parece que está tranquila, que no tiene ningún problema económico, y sigue gastando en ocio, viajes, juergas... pero luego de puertas para dentro tienen problemas. Lo triste de esta recesión es que hay mucha gente que se está quedando en el camino. Espero que el año que viene se arregle esta situación para todos”.



### Puri Revenga

“Datorren urtean lana edukitzea nahiko nuke. Jada urte eta erdi daramatzat langabezian. Erizaintza laguntzailea naiz eta noiz behinka ordezkapen batzuk egiten ditut, baina oso gutxi. Ez da egoera erraza, gizona eta biok gaude-eta lanik gabe. Baikorrak izan eta borrokan jarraitzea besterik ez zaigu geratzen. Askotan amore emateko gogoa sartzen zaizu. 50 urte ingurukoak ez ditu inork nahi, zaharregiak garela kontsideratzen dute. Orain edozein lanetan jartzen dizkidate oztopoak. Adin oso txarra da, baztertuta sentitzen hasten zarelako. Zorionez osasuna eta familia ditut eta jarrera baikorra izaten jarraituko dut”.



# Beasaingo Elikadura Bankuak, 4.175 kilo janari banatu ditu aurten

Desde 2009, el Ayuntamiento de Beasain, desde su departamento de Servicios Sociales, está adherido al Banco de Alimentos de Gipuzkoa, siendo los voluntarios de Nagusilan quienes se encargan de la distribución de alimentos a los más necesitados. Este año, en los primeros tres repartos, se han distribuido 4.175 Kg. de alimentos en Beasain entre 119 beneficiarios, según los datos facilitados desde la central que el Banco de Alimentos tiene en Oiartzun.

## "Jendea gaur egun ez dago besteei laguntzeko"

**Jose Joakin Lasa eta Patxi Berasategi**
**Nagusilaneko kideak**

**Duela lau urte hasi zineten Elikadura Bankuak bidalitako janaria banatzen, ezta?**
Bai, hala da. Udaleko Gizarte Zerbitzuak arduratzen dira beharrean daudenen zerrenda bat osatzeaz eta Elikadura Bankuko arduradunek esaten digute zer elikagai iritsiko zaizkigun. Taula bat egiten dugu. 13 kilo janari pertsonako izaten dira gutxi gora-behera. Eta gero, janari bila etortzen direnean, datuak eskatzen dizkiegu. Lehen pare bat egun behar izaten genituen banaketarako, eta orain berriz, egun bakar batean egiten dugu dena. Bospasei lagun aritzen gara, kamioia deskargatu, janari sortak egin eta banatu. Hori da egiten duguna.

**Urtean, zenbatetan?**
Lautan. Aurten hiru banaketa egin dira: ekainean, uztailean eta urrian. Eta esan digutenez, hurrengoa urtarrilean izango da. Gero, urtean bitan, Carrefourren janari bilketa antolatzen dugu txandaka Ordiziako Nagusilanekoekin, baina bilketa haietan jasotzen dena banatzeaz ez gara gu arduratzen.

**Zer profiletako jendea etortzen da?**
Gehienak atzerritarrak izan ohi dira. Pena ematen duena da egon daitekeela jende gehiago beharrean, eta beharbada, lotsagatik edo, laguntza hori eskatzen ez duena.

**Zer gorputzaldi uzten dizue jendea hain beharrean ikusteak?**
Ohitu egiten da bat. Gainera, gu ez gara haiekin hartu-emanetan sartzen, banaketara mugatzen gara, orduan ez dugu bizi dezaketen sufrimendua modu zuzenean ikusten.

**Zuen boluntariotza ez da horretara mugatzen...**
Ez. Saiatzen gara bakarrik bizi diren adineko pertsonei laguntzen. Etxeetara joaten gara eta baita Arangoiti egoitzara edo Eguneko Zentrora ere. Esaterako, medikuarengana laguntzen diegu, Zumarragako ospitalera joan behar badute, kotxez eraman eta ekarri, bingoa antolatu, eta abar. Nagusilan duela 10 urte sortu zen eta 25 bat lagunek osatzen dugu.

**Krisian dago boluntariotza?**
Gu oso pozik gaude egiten dugunarekin baina egia da boluntario berririk ez zaigula etortzen. Jendea gaur egun ez dago besteei laguntzeko, nahiz eta oso ondo ikusi guk egiten duguna. Guretzat hau obligazioa da, geure gain hartzen dugun konpromiso bat.

Nagusilaneko kideak aurtengo udan.







# Beasaingo familien ia erdiak baino gehiago, 5. edukiontziaren alde

**Sasietako Mankomunitateak jarri berri du edukiontzi marroia Beasaingo 52 gunetan, hondakin organikoekin konposta egin ahal izateko.**

Iraunkortasunaren bidean, beste urrats bat eman da Beasainen, beste herri askotan bezala, Sasieta Mankomunitatearen eskutik. Jada kalean jarrita daude edukiontzi marroiak edo bosgarren edukiontzi gisa ezagutzen ditugunak. Herriko 52 gunetan daude. Helburua da hondakin organikoekin konposta egitea, gero loretegietan ongarri gisa erabiltzeko, adibidez. 2008an, Gipuzkoako Batzar Nagusiek bosgarren edukiontzia ezartzea erabaki zuten hondakinen %60 prebenitu, birziklatu edo konpostatzeko xedez. Oraingoz, badirudi beasaindarrek begi onez hartu dutela aukera, familien ia erdiek izena eman baitute edukiontzi berri hau erabili ahal izateko. Atez ateko kanpaina egin da azaroan eta egun jakinetan, gune zehatzetan ere eskaini da giltza hartzeko aukera. Hemendik aurrera, norbaitek edukiontzi marroia erabili nahiko balu, Mankomunitatera jo beharko du.




**Enrike Enparantza**
**Sasieta Mankomunitateko teknikaria**

"Jendeak interes handia erakutsi du bosgarren edukiontziaren alde. Pentsa, lehenengo kanpaina egin dugu eta familien ia erdiek erabiliko dute. Gutxi gora-behera, Beasainen dauden 5.500 familietatik, ia %50ak ".

**"Aunque hayamos dado por finalizada en noviembre la campaña para el reparto de la llave, las personas interesadas en utilizar el quinto contenedor pueden acudir a las oficinas de la Mancomunidad de Sasieta a solicitarla"**

## Lo que necesitas en tu cocina...

- **Cubo marrón. Es el contenedor diseñado para tenerlo en la cocina junto con el resto de contenedores. Sirve para separar la materia orgánica.**
- **Bolsas de compostaje para depositar los restos orgánicos. En la Mancomunidad reparten 150 bolsas junto con el resto de objetos; más o menos, la cantidad necesaria para un año.**
- **Folleto informativo. En él se explica con todo tipo de detalles qué desechos sirven para hacer compost y cuáles hay que evitar.**
- **Llave para abrir el contenedor marrón. Los ciudadanos que deseen utilizar el quinto contenedor deben pedir la llave a la Mancomunidad para abrirlo. Está cerrado precisamente porque si se depositan en él vidrios o cartones por error, luego resulta muy complicado extraer ese material que no sirve para hacer compost.**




## Zer bota daiteke eta zer ez?

| BAI | EZ |
|---|---|
| Fruta eta barazkiak. | Haur-oihalak eta konpresak. |
| Lore eta landareak. | Olioa edo edozein likido. |
| Baratze eta loretegiko hondarrak. | Xurgagailu edo erratzarekin bildutako zikinkeriak. |
| Arrautza-oskolak. | Konpostagarria ez den edozer: beira, plastikoa, metalak, e.a. |
| Fruitu lehorren oskolak. | Zigarro puntak eta hautsontziko hondarrak. |
| Ogia eta opilak. | Animalien gorotzak. |
| Fruta-hezurrak. | |
| Muskuilu eta txirla oskolak. | |





# La peatonalización: acupuntura urbana

**Toques justos y necesarios para otorgar a cada espacio su propia identidad priorizando la convivencia como principal objetivo. Es la filosofía sobre la que se ha basado el departamento de urbanismo del Ayuntamiento para que Beasain sea un pueblo agradable y de calidad para trabajar y para vivir. Trabajando codo con codo junto a un grupo de arquitectos beasaindarras, el municipio ha ido sumando espacios diseñados para hacer más fácil el día a día y evitar los aislamientos, tomando como concepto clave la comunicación. Y es que está comprobado que el urbanismo incide directamente en la personalidad de los ciudadanos. Así que, podemos decir aquello de "dime dónde vives y te diré quién eres".**

## Oinezkoentzat jarri diren kaleetan:

**Zamalanak / carga y descarga:**
Astelehenetik ostiralera: 08:00/13:00.
*De lunes a viernes: 08:00/13:00.*

**Garajea duten bizilagunak / vecinos con garaje:**
24 orduz libre garajera sartzea edo handik ateratzea.
*Podrán entrar o salir durante las 24 horas del día.*

**Garajerik ez duten bizilagunek / vecinos sin garaje:**
08:00/17:00 eta 21:00/24:00 orduen artean, egunean behin sartu ahal izango dira 20 minutuz ibilgailuekin.
*Entre las 08:00/17:00 y las 21:00/24:00 horas, podrán acceder una vez al día para una estancia de 20 minutos con su vehículo.*



### Beñat Azurmendi

"A mí me parece estupendo que hayan peatonalizado toda esta zona. Está todo más bonito y hay más ambiente. Ahora mismo, el tiempo no acompaña, pero con un poco de sol se estará muy bien fuera del bar. Eso antes era imposible por el tráfico de coches. Además, hemos ganado en seguridad. Yo sí conduzco pero ya me he acostumbrado a otros trayectos. En cualquier caso, si es para algo en concreto, si tienes que acceder al núcleo urbano, los municipales sí te lo permiten".



### Iker Barriocanal

"Herritar bezala oso ondo dagoela iruditzen zait, gune oso handia geratu da. Umeak ditugunok eskertzen dugu horrelako guneak edukitzea. Pasiatzeko ez dago ez arrisku ez oztoporik. Bestetik, udaltzain naizen aldetik, ikusten da aparkaleku asko kendu dituztela eta herrian kotxea uztea arazo bihurtzen ari dela. Trafiko arazo batzuk ere sortu dira, orain bide gutxiago baitaude autoei irekita. Dena den, balorazio orokor bat egin beharko banu, positiboa dela esango nuke. Denborak arrazoia emango dio oinezkotzeari".

**Udaleko Hirigintza sailak bidelagun izan ditu herriko hainbat arkitekto jada errealitate diren hainbat proiektu diseinatu eta gauzatzerakoan. Horren adibide dira, Lizeoko estalpea, esne-makina, Gernika pasealekuko parkearen estaltzea, e.a.**



# Urtearen azken TXANPA

Inevitablemente el mes de diciembre adquiere un cierto tono de despedida. Adiós al año. Vuelta a pensar en los nuevos proyectos e ilusiones para los próximos doce meses. Entre luces, guirnaldas, escaparates y turrón, se nos avecinan días con una programación amplia y divertida.

## Abenduaren 17-18-19an Feria del Libro Irakurtzearen plazerra!

Urtero legez, Liburu Azokan salgai jarriko dira azken nobedadeak.

### HELDUENTZAT










"Fucking artist" – Xabier Montoia
"Nor bere bidean" – Joan Mari Irigoyen
"Zazpi orduak" – Miren Agur Meabe
"Ertzeko zatiak" – Jon Sarasua
"3 Mariak" – Arantxa Urretabizkaia
"Utopiaren itzalak" – Asel Luzarraga

### HAURRENTZAT







"Euskal mitologiako kondairak" – J. M. Olaizola
"Nur" – Toti Martinez de Lezea
"Amaia Lapito eta erregina gorriaren hilobia" – Katixa Agirre
Txirri, Mirri eta Txiribitonen ipuin bilduma.
"Jonasen ipuinak"

### MUSIKA







"Ontzak" – Kerobia
"Ortzemugak begietan" Ken Zazpi
"Don inorrez" – Bide Ertzean
"Bilintx" – hainbat autorek

Euskal Produktuen Katalogoa aurki etxe guztietara banatuko da euskarazko opariak aukeratu ahal izateko.






## Abenduaren 24an Olentzeroren etorrera: oinetakoak balkoira

Ez da egun hoberik etxeko txikientzat. Magia, emozioa, lo egin ezina... Aurten ere Olentzerok ez du hutsik egingo. Kantujirako kideekin batera ibiliko da kalez kale Gabon eskean, arratsaldeko 17:00etan Igartzako errotatik atera ostean.
Entseguak: Abenduaren 14an eta 21ean, 19:00etan, Gaztelekuan.

## Abenduaren 27-28-29-30ean Haurren Gabonetako Parkea: jolastera!

Antzizar kiroldegian Haur Parkea jarriko da, haurrek ahalik eta ondoen pasa ditzaten euren opor egunak.
Ordutegia:
Goizetan 11:00etatik 13:00era.
Arratsaldetan 16:00etatik 19:30era.






San Silbestre txikia: 10:30etik aurrera.
San Silbestre handia: 12:00etatik aurrera.

## Abenduaren 31n San Silbestre krossa: urtea ondo amaitzeko

Sasoiko egon ohi dira urteari agur korrika esaten dieotenak. Eta asko dira. San Silbestre krossean ateratzea jende askoren buruan dago. Ttipi-ttapa, ttipi-ttapa...

# Eskola Kirola: hezitzailea eta osasungarria

**El deporte escolar mueve en Beasain a unos 500 alumnos de diferentes centros escolares. La carta de actividades es bien extensa. Aunque el deporte estrella sigue siendo el fútbol, también juegan al baloncesto y al balonmano, y pueden elegir entre atletismo, tenis, pelota o ajedrez, entre otras modalidades. Objetivo número uno: pasárselo en grande.**



Koldo Agirre, Pako Urrestarazu, Aitor Esnaola, Jon Etxeberria eta Jose Mari Larrañaga, Eskola Kirolaren koordinatzaileak

Txikitatik ohitura onak hartzea garrantzitsua da, etorkizunean ere osasunari indarrean eusteko. Hain zuzen, osasuna eta balore hezitzaileak uztartzen dituen jarduera da Eskola Kirola. Beasainen, ikastetxe ezberdinetako 500 bat neska-mutil ibiltzen dira garaian garaiko kirola praktikatzen. Hiru hilabetero txandatzen joaten dira. "Urrian hasi eta maiatz bukaera arte ibiltzen gara. Saskibaloia, eskubaloia eta futbola praktikatzen ditugu. Hala ere, kirol horiez gain, badute aukera atletismoan, tenisan, pilotan edo xakean aritzeko, besteak beste", dio Koldo Agirre, Eskola Kirolaren koordinatzaile nagusiak. "Izan ere, adin jakin batera arte, errendimendua ezin da bideratu kirol bakar batera". Edonola ere, kirola eginez gozatzea da helburu nagusia. "Eskola Kirolak hezitzailea izan behar du bai haurren eta bai gurasoen aldetik. Eta batzuetan ez da hori gertatzen. Jokoa izango balitz bezala hartzen du zenbaitek. Haurren kasuan, beharbada, normalagoa da hori baina hor bai gu eta bai gurasoak saiatu behar gara kirola hezitzailea bihurtzen. Talde-lana, taldekideekiko eta aurkariekiko errespetua, eta abar lantzen dira".

Bestalde, boluntarioen esfortzurik gabe, hala nola, gurasoen, entrenatzaileen, eta abarren lanik gabe, ezingo lirateke jarduera hauek gauzatu inolaz ere. "Jarrera ona erakusten dute. Laguntza eskatuz gero, ahal duenak beti ematen du. Badaude, noski, asko mugitzen direnak eta beste batzuk ez hainbeste, baina boluntariorik gabe, Eskola Kirolik ezin da egin". Entrenatzaileetako batzuk, esaterako, gurasoak dira. 35 bat entrenatzaile ibiltzen dira neska-mutilen abileziak garatzen, astean behin edo bitan. Larunbat goizetan, berriz, partida tokatzen da. "Goierritik ez dira ateratzen gehienak, baina badaude zenbait talde Gipuzkoako beste herrietan jokatzen dutenak".

Berez, Eskola Kirolean 16 urtera arte har daiteke parte, baina nagusiki 8 eta 12 urte bitartekoak ibiltzen dira. "Gero jendea klubetan sartzen da", dio Agirrek. "Aurretik, teknikoki lortzen den maila taldearen araberan dago. Hamar jokalaritatik zortzi onak baldin badira, ba maila hobea lortzen da, noski".

Oraingoz, nahikoa lan dute egiten dutenari eustearekin. "Duela bi urte sortu genuen 8ko futbol talde bat, Beasaingo Bare Txikiak Futbol Elkartea, eta oraingoz duguna mantentzea nahikoa erronka da".

## Voluntarios por una sociedad futura saludable y educada en valores.

Todas aquellas personas que hacen posible la amplia oferta que abarca el Deporte Escolar forman un colectivo de voluntarios que trabajan en silencio por el bien de cientos de chicas y chicos de Beasain, que son parte del futuro de nuestra sociedad. Bien en la cancha o en el campo de fútbol, el deporte se convierte en el canal apropiado para desarrollar el trabajo en equipo y primar el respeto hacia los compañeros, entrenadores y contrincantes. Todas las personas que hacen posible que el Deporte Escolar siga funcionando se merecen, desde luego, el aplauso de los beasaindarras. Bejondeizuela!

**"Eskola Kirolak hezitzailea izan behar du bai haurren eta bai gurasoen aldetik. Eta batzuetan ez da hori gertatzen. Jokoa izango balitz bezala hartzen du zenbaitek. Haurren kasuan, beharbada, normalagoa da hori baina hor bai gu eta bai gurasoak saiatu behar gara kirola hezitzaile bihurtzen".**

**"Duela bi urte sortu genuen 8-futboleko talde bat, Beasaingo Bare Txikiak Futbol Elkartea, eta oraingoz duguna mantentzea nahikoa erronka da".**





## ZABALIK JOAN XXIII, 4-6ko BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZETARAKO ESKAERAK EGITEKO EPEA

Joan XXIII, 4-6an Beasain Lantzen, S.A. sustatzen ari den 21 babes ofizialeko etxebizitzetarako izen-emate epea zabalik da.

**Eskaera aurkezteko epea:** 2010-12-1etik 2010-12-30era.

**Eskaera aurkezteko tokia:**

1.- Beasaingo Udaletxeko Harrera Bulegoan, 08:30etatik 13:30etara. 6, 7 eta 8 egunetan Udaletxea itxita egongo da.

2.- Udalaren Web orrian: www.beasain.net.

3.- Korreoseko bulegoetan araututa dagoen moduan.

**Babes Ofizialeko etxebizitzen erregimena:** jabetza osotasunean.

**Izen emate eskaera:**

- Izen emate orria Udaletxean eska daiteke edo www.beasai.net web gunean eskuratu.

**Aipatutako babes ofizialeko etxebizitza-zozketan parte hartzeko baldintzak:**

1.- 2010eko azaroaren 30a baino lehen babes ofizialeko etxebizitza erosteko erregimenean Etxebiden inskribatuta egotea.

2.- Beasaingo udalerrian erroldatuta egotea era honetan: etengabe bi azken urteetan edota azken hamar urteetan, bost urte osataen duten egun kopuruetan, beti ere 2010eko abenduaren 1eko erreferentzi data kontuan izanda.



Babestutako etxebizitzak kokatuko diren gunea eta eskuinean, fotomontajea.

## ABIERTO EL PLAZO DE SOLICITUD PARA LAS VIVIENDAS DE PROTECCIÓN OFICIAL DE JOAN XXIII, 4-6

Abierto el plazo de inscripción para acceder a las 21 viviendas de protección oficial que Beasain Lantzen, S.A., promueve en Joan XXIII, 4-6.

**Plazo de presentación de la solicitud:** 1 al 30 de diciembre de 2010.

**Lugar de presentación de la solicitud:**

1.- Ayuntamiento de Beasain, Oficina de Atención al Ciudadano de 08:30 a 13:30 horas. Los días 6, 7 y 8 el Ayuntamiento permanecerá cerrado.

2.- En la página Web del Ayuntamiento: www.beasain.net.

3.- En las oficinas de Correos de la manera reglamentariamente establecida.

**Régimen de las viviendas de protección oficial:** Plena propiedad.

**Impreso de solicitud:**

- Solicitar el impreso correspondiente en el Ayuntamiento. Disponible también en www.beasain.net

**Requisitos para acceder a las citadas viviendas de protección oficial:**

1.- Estar inscritos en Etxebide en régimen de compra de VPO con anterioridad al 30 de noviembre de 2010.

2.- Estar empadronados en el municipio de Beasain en los dos últimos años de manera ininterrumpida o en los últimos diez años durante el número de días que representen cinco años, tomando como referencia en ambos casos el 1 de diciembre de 2010.